



Osasun Eskualde Oinarrizkoa

Doneztebe / Santesteban



Observatorio de Salud Comunitaria de Navarra
Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2020):	5.435 Emak.: %48,1 Giz.: %51,9
Batez besteko adina:	Emak.: 44 Giz.: 44,6
Jaiotza tasa:	‰8,8
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%33,7
Atzerrian jaiotako biztanleak:	%8,4
Bizi itxaropena:	Emak.: 86,1 Giz.: 78,9
Zabalera:	262,08 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Nafarroa Atlantikoa (ikus mapa)
Udalerriak:	Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oitz, Saldias, Doneztebe/Santesteban, Sunbilla, Urrotz, Zubieta

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Doneztebekoa da langabezia-tasarik txikiena (% 6,7) duten oinarrizko eskualdeetako bat eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumeen etxeen portzentajerik txikiena (% 29,2) dutenetako bat. Hala ere, bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonen etxeen portzentajea (% 25,6) handienetako bat da. Baso-azaleraren portzentajerik handiena duten eskualdeetako bat da (% 64,6).

Osasunari dagozkion emaitzak. Donezteztekoa emaitzarik onenak dituzten Nafarroako eskualde oinarrizkoen % 25,0ren artean dago portzentaje

hauetan: soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 39,5), kronikoen estrategian lehenetsirik 3 patologia edo gehiago dituzten emakumeak (% 2,5) eta emakumeen antsiolitikoen eta antidepressiboen kontsumoa (% 14,6). Aitzitik, adierazle hauek Nafarroako okerrenen artean daude: 2. motako diabetesa diagnostikaturiko gizonak (% 10,2), eta pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera arteko haurrak (% 36,9 nesketan eta % 39,4 mutiletan).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Etxarri Aranazko eskualde oinarrizkoa eskualde horretan dago. Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak emaitzarik hobereana du emakumeen sedentarisismoan (% 19,7). Aitzitik, emaitzarik okerrenak ditu datuotan: asteko alkohol-kontsumoa (% 6,3 emakumeetan eta % 34,4 gizonetan), tabakoaren eguneroko kontsumoa emakumeetan (% 13,1), fruta eta barazkien eguneroko kontsumoa gizonetan (% 18,8) eta gehiegizko pisua 15 urte edo gehiagoko pertsonetan (% 45,0 emakumeetan eta %61,1 gizonetan).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.


Osasunerako baliabideak

Komunitatean badira osasunerako zenbait aktibo ahalmena dutenak norbanakoek, komunitateek eta herriek osasuna eta ongizatea mantendu eta sortzeko duten gaitasuna indartzeko (salutogenesia).

-> [Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 5-6: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Estat; 4: Errenta. Estat; 7: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistema); 8, 23-26, 29-30: Oinarrizko osasun-laguntza; 9-20: ESYCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 21-22: NOPLO; 27-28: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (9-20) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5 eta 6.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **7.** Baso-azalaren %; **8.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **9 eta 10.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 40,4 eta gizonak 20,4); **11 eta 12.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 14,5); **13 eta 14.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 34,5); **15 eta 16.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 13,8 eta gizonak 15,3); **17 eta 18.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 26,3 eta gizonak 15,8); **19 eta 20.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 47,2 eta gizonak 61,6); **21 eta 22.** Pisu gehiegi - gehiegizko pisua edo obesitatea duten 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 31,6); **23 eta 24.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,1); **25 eta 26.** Kronikoen estrategian lehenetsitako 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 3,2 eta gizonak 6,1); **27 eta 28.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (t. gordina: emakumeak 19,2 eta gizonak 8,9); **29.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **30.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.